



Material didaktikoak

LAGUNTZAILEAREN DOSSIERRA

Lehenengo argitalpena: 2019ko otsaila

Materialen idazleak: M. Àngels Sellés Pons eta Mercè Sendrós Farré
Diseinua eta maketazioa: La Mar de Fàcil

La Mar de Fàcil
Cuba kalea, 18, solairuartea
08030 Bartzelona
www.lamardefacil.com

© La Mar de Fàcil, 2019

GIDA DIDAKTIKOAREN ARRAZOIA

Gida honek baliabide erabilgarria eta funtzionala izateko helburua du. Asko gustatuko litzaiguke irakurleari laguntzeko balioko balu. Irakurle trebeak sortzea ez da lan erraza, baina irakurketarekin zerikusia bakarrik duen limiteetatik harantzago doa askotan, eta dimentsio sozial oso garrantzitsuetara irits daitekeen lanketa aberasgarria eta suspergarria da. Irakurketaren hedapenaren parte izatea modu batera edo bestera, irakurketan laguntzeaz arduratzen garenoi bakarrik dagokigun pribilegioa da.

Irakurketa prozesu osoan zehar, laguntzaileak (maisua-maistra, irakasle, pedagogo, psikologo, hezitzaile, bibliotekari...) oso eginkizun garrantzitsua du estimulatzeko, dinamizatzeko eta sozializatzeko. Azken finean, irakurketarekiko benetako afizioa sustatzeko ezinbesteko pertsona da eta ikasle desberdinei irakurketaren munduan barneratzeko ariketak ezartzen dituen eragilea.

Profesional honen lana gidaria izatea da, irakurleari lagundu eta gidatzen baitio, trebea izateko modurik eraginkorrena erakusten diona eta irakurmen ona izaten irakasten diona. Horregatik da garrantzitsua lanketa aberasgarri horri aurre egiteko, irakurtzeko ohitura ikasleen egunerokotasunaren parte izatea lortzeko eta hauek irakurtzen gozatzeko eta irakurketa plazerraren, ikasketa-prozesuaren eta gizarte-elkarrekintzaren iturri izateko profesional horrek baliabideak izatea.

Aurkezten dizuegun gida honek alderdi didaktikoak, ludiko-metodologikoak eta balio etikoak biltzen dituen eta irakurketaren zeharkako ikuspuntua azaltzen duen tresna praktikoa izatea du helburu. Hizkuntzaren ezaugarri formaletan enfasi berezia jarriz eta horrez gain, funtzionamendu kognitiboa eta emozionala aktibatuz.

GIDA DIDAKTIKOAREN EGITURA

La Mar de Fàcil argitaletxeko Núria Martíren *ZERU BERAREN AZPIAN* liburuaren gida didaktikoa ikaslearentzako eta honen laguntzailearentzako txostenek osatzen dute. Horrez gain, ariketa dibertsifikatuak ere baditu, eta ondorengo egitura jarraituz dago diseinatuta:

1. Espiritu kritikoa sustatzeko, saio libreetan, tutoretzetan eta ahozotasun lanketetan, hausnarketaren bitartez eta bizikidetzaren eta aspektu emozionalen ikuspuntuaren elkartrukearen bitartez, liburuak azalduko dizkigun balioen edukia aurreratzea da helburua.
2. Irakurlearen hiru faseetan irakurmena sustatzeko ariketen sailkapena:
 - **Irakurri aurretik:** Irakurri aurretik, interesgarria da ikasleak motibatzea irakurriko dutenaren inguruan. Azala eta kontrazala aztertu eta nabarmentzeko ariketak eta irudiak —ilustrazioak eta argazkiak— begiratzea, besteak beste, primerako baliabideak dira hipotesiak eta inferentziak egiteko liburuaren gaiaren inguruan.
 - **Irakurri bitartean:** Gida didaktikoa ondorengo blokeetan antolatutako ariketekin proposatzen dugu:
 - Planteamendua
 - Korapiloa
 - Amaiera
 - **Irakurri ondoren:** Irakurketa amaitzean, liburuaren amaieran aurkitzen den *Eta zuk, zer deritzozu?* atalean aurkitzen diren sintesi ariketak egitea proposatzen dizuegu.

JARDUERA MOTAK

Proposatzen ditugun jarduerak honelako taldeetan banatzen dira:

Irakurketakoak (I): Irakurmen-estrategiak erabiliz: hipotesiak edota aurreikuspenak, inferentziak, ondorioak, bistaratzeak, testuaren ideia nagusiak, laburpenak, laburbilduak...

Ahozkoak (A): Hausnarketa, eztabaida, mahai-inguruak, elkarrekintzak eta iritziak...

Lexikoa (L): Hiztegiaren ezagutza, sinonimoak...

Informazioa biltzea (IB): Informazioa gehitzea baliabide desberdinak erabiliz.

Elaboraziokoak (E): Produktu mota desberdinak sortzea (idatzizko adierazpena, testuak, muralak, mapak, marrazkiak, komikiak, eta abar).

Ebaluaziokoak (EB): Irakurketaren segimenduaren eta ezagutza gramatikalaren inguruko galderak.

Ariketa gehigarriak (AG): Irakurmen helburuaren arabera, profesional bakoitzak aukeratu eta programatzen dituen aukerako ariketak dira. Jarduera hauen helburua irakurmen jarduerari zeharkako tratamendu ematea eta ikaskuntza-arlo desberdinei lotzea da, erreferentzia modura ikasleek bereganatu behar dituzten Oinarrizko Gaitasunak hartuz.

Zalantzarik gabe, liburuaren gaiak eztabaidarako eta ezagutza gehitzeko gaiak eskaintzen ditu hainbat ikuspuntu desberdinetatik.

IRAKURKETA LAGUNTAILEARENTZAKO GIDA

AURKEZPENA

Irakurtzeko gogoia suspertzeko helburuarekin, etengabean irakurketa ez ekiditea garrantzitsua dela uste dugu. Horregatik, ariketen proposamena “argumentuaren atal”etan sailkatu dugu, Planteamendua, Korapiloa eta Amaiera izenburupean. Sail bakoitzean atal bakoitzerako ariketen proposamen orokor bat dago.

ARGUMENTUAREN ATALAK	ORRIALDEAK	IZENBURUAK
PLANTEAMENDUA	9-32	“Aurkezpena”, “Frantziarako bidea”, “Masia”, “Itsasontzi bat Txilera bidean”
KORAPILOA	35-51	“Federico eta itsasoa”, “Ekaitza”, Iritsiera”
AMAIERA	55-75	“Deliaren ostatua”, “Herrialde berri bat, bizi berri bat”, “Itzulera”, “Sara”

IRAKURTZEN DEN BITARTEAN EGITEKO JARDUERAK

ARGUMENTUAREN ATALA: PLANTEAMENDUA

LEHENENGO ZATIA (9. orrialdetik 32. orrialdera): “Aurkezpena”,
“Frantziarako bidea”, “Masia”, “Itsasontzi bat Txilera bidean”

1. **(I, L)** Ikasleek 9. orrialdetik 32. orrialdera dauden kapituluak irakurri ondoren, hiru gako-hitz idazteko eskatuko zaie. Hitz hauek testuaren oso erakusgarri izan behar dute.

Gako-hitzak
1.
2.
3.
<i>(Erantzun librea)</i>

2. **(A,L)** Komenta itzazu zure ikaskideekin idatzi dituzten gako-hitzak. Konpara ezazu hiru ikaskiderekin ia kointzidentziarik dagoen. Idatz itzazu kointziditu duten hitz horiek.

<i>(Erantzun librea)</i>

Ikasleek bere ikaskideekin komentatu behar dituzte gako-hitzak. Ea kointzidentziarik dagoen ala ez aztertuz. Irakasleak/laguntzaileak kointziditzen duten gako-hitzak bilduko ditu eta apuntatu egingo ditu, guztientzat ikusgarria den gelako leku batean.

ZERU BERAREN AZPIAN

3. (L, IB) Ikasleek ondorengo hitzen definizioak idatzi behar dituzte, beren ezagutza erabiliz edota hiztegia kontsultatuz.

Hitza	Definizioa
GERRA ZIBILA	Gerra zibil bat herrialde edota nazio bereko pertsonak aurrez aurre jartzen dituen gatazka da. Lurralde berdinean elkarbizitzen diren eta ideologia edota interes desberdinak dituzten eta hori indarrez inposatu nahi duten pertsonen arteko borroka biolentoari deritzo. Espainiako gerra zibila , narrazioak erreferentzia egiten dion horri, 1936 eta 1939 bitartean gertatu zen. Gatazkak bando nazionala edo matxinatua (faxistek eta goi-kargu militarrek osatua) eta bando errepublikarra (ezkerreko alderdiek eta errepublikaren jarraipena defendatzen zuten haiek osatua) jarri zituen aurrez aurre. Gerra zibil hau, kitapen modura 500.000 bat hildako utzi zituen, bando nazionalaren garaipenarekin amaitu zen, eta Francisco Franco diktadorearen hasiera markatu zuen.
TRAGEDIA	Sufrimendu handia sortzen duten eta ondorio konponezinak dituzten gertakariei deritzo. Zoritxarrekoa eta iluna den benetako bizitzaren gertakaria. Literaturan hala deritzo gai serioa edota transzendentea garatzen duten obra dramatikoek osatzen duten literatur-generoari. Haue-tan, grinak edota zorigaitzak zoritxarreko bihurtzen du protagonista.
SOLIDARITATEA	Norberarenak ez diren kausa edota interesekiko atxikimendua edota baldintzarik gabeko sostengua, bereziki egoera arriskutsu edota zailetan. Solidaritatea gizakiaren balio beharrezko eta garrantzitsuenetarikoa da. Solidaritatea pertsona batek beste bati, behar duenean ematen dion laguntzari deritzo. Solidaritateak bereziki lan bat amaitzeko kolaborazioan datza; besteei lagundu nahia izateko sentsazioa da, trukean zerbait jasotzeko asmorik izan gabe.
ERREFUXIATUA	Pertsona batek arrisku baten mehatxuarengandik alde egiten duenean, babesturik egoteko leku seguru bat bilatzen du beti. Hau errefuxiatzeko (estalpetu, babestu) kontzeptuari lotzen zaio. Errefuxiatu hitza erabiltzen da, jazarpen politiko batengatik, gerra-gatazka batengatik edota beste egoeraren batengatik bere bizia arriskuan egon eta atzerrian asiloa eskatu behar duen pertsonari deskribatzeko.

4. (I, EB) Ikasleek X batekin markatuko dituzte zuzenak diren baieztapenak.

- G Protagonistak lasai daude beraien herrialdea utzi behar dutenean.
- E Mirandak amari men egiten dio.
- G Teresa beti dago oso isilik eta ez du inoiz hitz egiterik nahi.
- E Protagonistek beraien etxearen falta somatzen dute, baina pozik daude Frantziara iristen direnean.
- E Teresak oso panpina zatarra egin zien, baina asko gustatu zitzaien.
- G Bi neskatilak ez dira adin ingurukoak eta horregatik ez dira lagunak.
- F Pablo Neruda musikalaria uruguaiarra zen.
- E Txileko presidentek itsasontzian iristen ziren guztiak bertan geratu ahal izango zirela hitz eman zuen.

5. (E) Teresak egunkarian irakurri zuen Txilera itsasontziz joan nahi zuten errefuxiatuek Pablo Nerudari gutun bat idatzi behar ziotela.

Imajina ezazu Teresa zarela. Idatz iezaiozu gutun bat Pablo Nerudari berak egin zuela pentsatzen duzun modu berean.

1939ko _____ ren _____ an

Pablo Neruda jauna,

Teresa

(Teresa eta Mirandak Txilera bidaiatu ahal izateko eskaera biltzen duen erantzun librea)

ARGUMENTUAREN ATALA: KORAPILOA

BIGARREN ZATIA (35. orrialdetik 51. orrialdera): "Federico eta itsasoa", "Ekaitza", "Iritsiera"

Irakurketan zehar, irakurleei Teresa eta Mirandak bizitzen dituzten momentu eta esperientzia gogorak apuntatzen joateko eskatuko zaie.

1. (I, L, E) Irakur ezazu 35. orrialdetik 51. orrialdera. Istorioan, Teresa eta Mirandak herrialde berri baterako bidean esperientziak bizitzen dituzte. Teresak gogo-aldarte desberdinak izaten ditu.

Behin 35. orrialdetik 51. orrialdera irakurtzean, irakurleei gutxienez bost gogo-aldarte desberdin zerrendatzeko eskatuko zaie.

Teresa eta bere gogo-aldarteak

- *Tristura (35. orrialdea)*
- *Ilusioa (25. orrialdea)*
- *Zirraraz beterik (35. orrialdea)*
- *Urduri (sabelean hutsunea sentitu) (35. orrialdea)*
- *Maiteminduta (bihotzean suspertzen zion berotasuna) (maite zuela konturatu zen)*
- *Beldurturik eta urduri (45. orrialdea)*
- *Izua (46. orrialdea)*
- *Esperantzaz beterik (46. orrialdea)*
- *Bizitzeko gogoa (49. orrialdea)*

LAGUNTZAILEAREN DOSSIERRA

2. **(A, I, L, EB)** Behin istorioko protagonista batzuk ezagutzen dituztenean, ikasleei pertsonaia bakoitza gehien definitzen dituen balioekin erlazionatzeko eskatuko zaie. Garrantzitsua da erantzunak eta hauen interpretazioak arrazoitzea.

(Erantzun hauek lagungarriak iruditzen zaizkigu).

	Pablo Neruda	Teresa	Miranda	Federico
Solidaritatea	X			X
Norberekoikeria				
Laguntasuna		X	X	X
Baikortasuna	X	X	X	X
Konpromisoa	X			X
Ausardia	X	X	X	X

3. **(E,EB)** Komikia irudiak eta idatzizko hizkuntza konbinatzen dituen kontaketa mota bat da. Irakurleei “gehien gustatu zaien edota gehien harritu dien pasartearen komiki tira” bat lantzeko eskatuko zaie (gutxienez bineta bat eta gehienez lau izan behar ditu). Istorioari izenburua jartzeko eta bineta bakoitzaren azpian zerbait idaztera animatzen zaie.

Izenburua:

(Erantzun librea kontsideratzen dugu)

4. **(EB)** Irakurleak E edo G idatziko du hurrengo baieztapenak egia edo gezurra diren adierazteko:

- G** Esku sendoak eta finak.
- E** Altua eta argala.
- G** Gaztaina-koloreko ilea eta begiak.
- E** Apur bat oker dauden hortzak.
- G** Bizkar zuzena.
- G** Tripa handi samarra.
- E** Ahots eztea.
- E** Sudur harroa eta puntazorrotza.

(37. orrialdetik 41. orrialdera aurkitzen dira erantzunak)

5. **(A,L, IB)** Irakurleak 4/5 pertsonako taldeetan bildu eta arrazoi desberdinengatik herrialde bat abandonatu behar izateari buruzko mahai-inguru bat egitea proposatzen zaie.

(Erantzun librea kontsideratzen dugu)

ARGUMENTUAREN ATALA: AMAIERA

HIRUGARREN ZATIA (55.orrialdetik 75. orrialdera): “Deliaren ostatua”, “Herrialde berri bat, bizi berri bat”, “Itzulera”, “Sara”

Ikasleei 55.orrialdetik 75. orrialdera arte dauden kapituluak irakurtzeko eskatzen zaie. Informazioa berrantolatzeko eskatzen zaie esaldiak ordenatuz eta testu bat berridatziz irakurritako istorioa kontuan hartuta.

Haiei lana errazteko, esaldiak zenbakitzeko adierazten zaie.

- 1. (I, E, EB)** Irakurri 55. orrialdetik 75. orrialdera dauden kapituluak. Ordena itzazu esaldiak eta idatz ezazu testu zentzudun bat.

Federico eta Teresak lana aurkitu zuten eta ezkondu ostean familia berri bat osatu zuten.	3
1973an Txilek askatasuna galtzen du eta Mirandak bere herrialde berria utzi eta alde egitea erabakitzen du.	5
Federico eta Teresak lana aurkitu behar zuten segituan eta Mirandak eskolara joan behar zuen.	2
Jatetxe bat ireki eta Miranda irakasle eta idazle bilakatu zen.	4
Teresa eta Miranda 30 eguneko bidaiatik iristean Deliarekin egin zuten topo, eta honek bi logela eskaini zizkien bere ostatuan.	1
Sara eta Mirandak ondorioztatu zuten Frantziako zeruko izarrak eta Txilekoak berdinak zirela.	7
Mirandak bere lagun-mina Sara bisitatzea erabakitzen du.	6

Ikasleek informazioa berrantolatzen dute, istorio koherente bat idatziz.

Idatz ezazu istorioa ordena zuzenean.

2. **(E, IB, A)** Irakurleari Pablo Nerudari buruz informazioa biltzeko eskatzen zaio. Argazkiak, idatziak eta olerkiak bildu, mural bat diseinatu eta gelan zintzilikatu ahal ditzake. Jarraibide honek gidatzen du.

Izen osoa: Ricardo Eliécer Neftalí Reyes Besoalt. Pablo Neruda izengoitia da.

Jaiotza-data eta lekua: Parral (Txile), 1904ko uztailaren 12an.

Heriotza-data eta lekua: Santiago, 1973ko irailaren 23an.

Heriotzaren arrazoia: Pentsak adierazi zuen Nobel-a prostatak minbiziaren ondorioz hil zela. Bere heriotza beti izan da eztabaidagai. 2017ko urrian, Santiagon bildu ziren peritu adituen talde internazional batek adierazi zuen, Nerudak gaitz hura izan arren, heriotzaren arrazoiak ez datozela bat horren pairamenarekin, toxina batenarekin baizik.

Literaturaren Nobel Saria eman zitzaion urtea: 1971

Lanbidea: idazlea, olerkari, diplomatikoa, politikaria. Alderdi Komunistaren kide aktiboa izan zen.

Olerki-liburu ezagunenaren izenburua: *Veinte poemas de amor y una canción desesperada*, Santiago, Nascimento argitaletxea, 1924.

Bila ezazu eta kopiatu bere poemaren lerroren bat. Adibidez:

Amor

*Mujer, yo hubiera sido tu hijo, por beberte
la leche de los senos como de un manantial,
por mirarte y sentirte a mi lado y tenerte
en la risa de oro y la voz de cristal.
Por sentirte en mis venas como Dios en los ríos
y adorarte en los tristes huesos de polvo y cal,
porque tu ser pasara sin pena al lado mío
y saliera en la estrofa -limpio de todo mal-.
Cómo sabría amarte, mujer, cómo sabría
amarte, amarte como nadie supo jamás!
Morir y todavía
amarte más.
Y todavía
amarte más
y más.*

3. (IB, L) Irakurleek Federicok sukaldean egiten dituen plateren izenen inguruan bilatu behar dute informazioa. Bi kasutan, osagaien bitartez platerraren izena deduzitu beharko du.

Idatz itzazu bere plater gogokoenen izenak.

1. Oilaskoa (61. orrialdea)
2. Gazpatxoa (Osagaiak aztertuz deduzitu: tomate helduak, piper berdeak, olio eta ozpina) (61. orrialdea)
3. Ogi-mamiak (Osagaiak aztertuz deduzitu: ogi bustia, arrautzak eta urdaia jakia) (61. orrialdea)

4. (I, E, EB) Irakurleek, liburuaren irakurketaren sintesi modura, pertsonaia nagusiak aurkeztuko dituzte, familietan multzokaturik.

Mirandaren familia:

Izena: <i>Miranda</i> Ahaidetasuna: <i>Alaba</i> <i>Alabaordea</i>	Izena: <i>Teresa</i> Ahaidetasuna: <i>Ama</i>	Izena: <i>Federico</i> Ahaidetasuna: <i>Aitaordea</i>
--	--	--

Frantzian bizi direnak:

Izena: <i>¿?</i> Ahaidetasuna: <i>Sararen aita</i>	Izena: <i>Maria</i> Ahaidetasuna: <i>Sararen ama</i>	Izena: <i>Sara</i> Ahaidetasuna: <i>Mirandaren laguna</i>
---	---	--

Txileko pertsonaiak:

Izena: <i>Delia</i> Lanbidea: <i>Ostatu bateko jabea den emakumea</i>	Izena: <i>Pablo Neruda</i> Lanbidea: <i>Idazlea, olerkari, politikaria</i>
--	---

ZERU BERAREN AZPIAN

5. (E, EB) Idatz ezazu bi lerrotan liburu honen inguruan duzun iritzia:

(Erantzun librea)

1etik 10era, zenbateko nota merezi duela uste duzu?

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

Pentsa ezazu ea nori gomendatuko zeniokeen eta arrazoitu erantzuna.

(Erantzun librea)

ARIKETA GEHIGARRIAK (AG):

Ariketa hauek aukerakoak dira, eta, argi eta garbi, adinaren eta irakurleen motibazioaren arabera burutu ahalko dira.

M. Àngles Sellésen *Chamartínetik Collbatóra, Espainiako gerra zibila ume baten ikuspuntutik (1936-1939)* liburuaren **irakurketa**. La Mar de Fácil argitaletxea, Aktual bilduma.

Michael Radforden *El cartero (y Pablo Neruda)*, (1994) **filma ikustea**. Film honek postari baten eta Pablo Nerudaren arteko adiskidetasuna azaltzen du.

Agustí Villarongaren *Pan Negro*, (2010) filma ikustea. Emili Teixidoren nobela homoni-moan oinarrituta. Gerraostean Kataluniako landa-eremuan jazotzen den 11 urteko mutiko baten ikuspegia azaltzen du.

Pablo Larrainen *Neruda*, (2016) **filma ikustea**. 40. hamarkadaren amaieran, Txileko Gabriel González Videlaren gobernuak olerkaria jazarpen gupidagabeen azpian jarri zuten, eta film honek hori berreraikitzen du.

